


# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

243n. zenbakia  
iraila 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ESTORNES LASA'TAR  
BERNARDO (G.B)**

- GUDA AURREAN IZPARLARIA
- IZTEGIGILLEA
- ERRI-AZTERTZAILLEA
- EUSKALZALE ZINTZOA
- IDAZLE UGARIA

## PURDENTZI DEUNA

Purdentzi Deuna... arabaŕen deuna... Araba'ren Zaindaria... Armentia eŕi politean jayo zan... oso aspaldian... seigaŕen edo zazpigaŕen mendean... oñork eztaki zein egunean...

Aren beŕiak mendez-mende ta aoz-ao eldu dira gaur arte arabaŕen artean. Eta oŕela dakigu nor izan zan eta zer egin zuen.

Baña beŕi oiek ez dute esaten oso aipagaŕia dan gauza bat: Purdentzi Deuna arabaŕa izan zan baña EUSKALDUNA ere. Bere bizi izan zan aldi artan, euskera Araba guzian mintzatzen zan eta Eŕioja'n ere. Gaur gurean itzegiten dan erdera, orduan jayo gabe zegoen; eta arabaŕ guziak euskaldunak ziran.

Purdentzi Deuna piztu ta ona etoŕi ezkeru, ezin arabaŕ geyenentzat ari ulertu, ez eta arek gaurko arabaŕei. Baña guretzat ori oso eŕeza, euskaldunak geralako.

Purdentzi Deun'ak Yainkoa maite-izan zuen txikitatik. Gazte izan zanean, Saturio Deun'aren beŕia entzun zuen, eta deun au oso on eta aundia zalako, bera ikustera joan zan.

Saturio Deuna ikusi zuen, asko ibili ondoren, bere lezearen ondoan otoiegiten ibai baten urbil; toki artara eltzeko, ibaia igaro beaŕ zan, eta zubirik ez ori egiteko; orduan Purdentzi Deuna urtara sartu zan eta ur ganetik ibiltzen, laister Saturio Deun'arekin egon zan. Saturio Deun'ak, aŕituta, auxe esan zuen: Nola gizon bat ur gañean ibili?; au alatza da, ta ori egin duena deun aundia ere izan beaŕ.

Luzaroan bizi ziran bi deunak alkaŕekin, arabaŕa asko ikasten. Baña gero Purdentzi Deuna apaiz egitera joan zan. Aldi gutxi baŕu, beaŕ zana ikasi ondoren, apaiz egin zuten, eta guttiz jakintsua zalako, Gotzaña ere.

Gotzaña bezela lan aundiak egin zituen, onak oro. Baña bereziena ta onena auxe izan zan: Yaingoa'k doai edeŕ bat eman zion, pakea egiteko doaya, ta alkaŕekin asaŕetuta zegozanak adiskide biurtzeko. Doai ori erabiltzeko, burua ta biotza

jaŕi zituen Purdentzi Deun'ak osoki. Doai oŕen omena bazter guzietara zabaldu zan, eta toki guzietatik beraren bila zatozen amaika lagun, beren artean zegoen ezin-ikusia, gure deunaren bidez eztitzeko.

Batzuetan asaŕetuak zegozenak Gotzaña ikustera zetozen; baña beste batzuetan, Gotzaña zijoan asaŕetuak zegoen eŕia edo tokira. Bein ortarako, Tarazona eŕi aundira joan zan, andik deituta. Lagunak ugari zegozen bearen zai, ta ango eliza nagusian sartu zanean, bertako yoaleak, iñork ikutu gabe, berez, alaiki jo-egin zuten. Alatz aundi ura ikusita, aŕituta zegoen guziak, eta gure gotzaña gero ta geyago maite-izan zuten.

Il zanean, eta berak len oŕela eskatu zuelako, mando baten gañean jaŕi zuten bere gorpua; mandoa, iñork ere eraman gabe, ibiltzen asi zan eta ibili ta ibili, leku berezi batean gelditu zan. Eta deunaren naia betetzeko, an bertan eortzi (lurperatu) zuten eta gañean eleiza bat egin zuten Eŕioja'n.

Arabaŕok ongi jakin beaŕ degu Purdentzi Deun'aren bizia nolakoa izan zan, bera gero ta gayago maite izateko.

Bai, Purdentzi Deuna, arabaŕa izan zan eta euskalduna, beti siñismen aundikoa. Apaiza izan zan eta geroago gotzaña ere. Lan aundiak egin zituen, eta oien artean onena, pakearen alde ain ederki burutu zuena, alkaŕen arerioak adiskide biurtzeko. Orixe da, len, orain eta beti, Mundu ontan egiteko lan bikañena, Yainkoa'ren naya betetzeko.

Guk biotzez maite dugu Purdentzi Deuna. Arabaŕa izan zalako, euskalduna izan zalako, baña batez ere gizonen artean pakea egin eta zabaldu zuelako. Gaur ere "Pakearen Zaindari"tzak, toki guzietan onartzean, oso on eta egokia geron ustez.

Gora Purdentzi Deuna, Araba'ren zaindaria!

Urrestarau'tar Andoni  
(Umandi +)

## EUSKERAZALEAK ALKARTEA

### OARRA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k batzar bereizi bat egingo dau 1999'ko iraillaren 9'an, lenengo deia arratsaldeko 7:30'etan eta bigarren deia 8'etan, Kolon de Larreategi 14, 2.a, eskoian dan bere gizarte-etxean.

Batzar onetako gai bakarra gure Araudia eguneratzea edo zeozetan aldatzea izango da eta oraingoz 9n. araua aldatzea eskatzen da.

Bazkide guztiai dei egiten jake batzar bereizi onetarako.

ZUZENDARITZA BATZORDEAK

# KEA URI AUNDIETAN (Berebillak)

Berebillak saltzeko zabalkunde aundia egiten da aspaldion, beste salgai asko saltzeko egiten dan antzera. Ez gitxiago.

Zabalkundeia egiten dan bakoitxean beste au esan bear litzake: "Osakidetzak argi diño berebillak gure osasunarentzat benetan kaltegarriak dirala".

Munduko Osasun-Batzordeak (OMS), arazo oneri begira, iru errialde aztertu dauz: Frantze, Swiz eta Austri. Errialde oneitan urte baten 21.000 eriotza aurreratu dauz berebillen keak eta, gaiñera, ke onek kalte aundiak egin dauz umeen birietan, biotz-estuetan eta arnas-estuetan. Bideko iztripuetan 10.000 erritar il dira, baiña berebillen keak 21.000 eriotza eta gaiso asko ekarri dauz.

\*\*\*

Laterri Batuetan tabakoaren aurka salaketak egiten dira epaitegietan. Zergaitik ez berebillen aurka?

Berebillak saltzeko zabalkundeia egiten dabenean, dana agertzen da ondo baiña ez da agertzen berebillen keak egiten dauan kaltea, edo bideetan orduak eta orduak igaro bear izaten dirala alkarren atzean itxaroten dala, norberarentzat naiz besteentzat oso arriskugarria, edo konponketak egoteko millak pezeta asko emon bear izango dala, gauko urietan ez dala aurkitzen berebilla non itzirik edo asko ordaindu bear izaten dala.

\*\*\*

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Zabalkunde ori agintariakaz oso ondo alkartuta agertzen da: Laterriarentzat irabazbide aundi bat da, lanpostuak sortzen dauz, zerga aundia ordaintzen dabe... Olakaoak ez dira esaten, baiña or dagoz.

\*\*\*

Eta guk arnasan kea artu bear, eta ke aundia artu be, ainbeste berebil dabillelako!

Itaun batzuk dakarskuz burura arazo onek: Zergaitik ez dira zabaltzen tximist-indarrezko berebillak? Edo, zergaitik ez dira erabilten uri aundietan busak (omnibus'ak) bakarrik? Olako eta bearrezkoak diran aldakun-

tzat ez egiteko, izango dira or dirudunen gurariak. Arro-rioak indar aundia dauka gaurko munduan.

OLAZAR'tar Martin'ek



## EDERTASUNA

Ez da lan erreza, edertasuna itzez mugatzea: "bera dalako, eraren itxurazko esaeran, ondoriozko adierazpena". Gure derrigorrezko egin bearrak gauzarekin eta gauza guztietan eguneroko egikuntzan, era berdinean egon-daitez, aldi-bateko erri-artze onek eskatzen dauan mail ingurutik bikaintasuna, edo orekan, neurri egokitasunezkoa.

Iztegiak mugatu egiten dau: "gogoaren (espíritu) ikusteari emoten dautson gozagarria, gauzaren egokitasunak". Arteko mailan: "erti-lanetan (obras de arte) egindakoak". Gogai-bulko'an (ideal): "eder zaleari (artista) egoki-zaion eredu nagusi (prototipo) edo molde-erakusmenak". Edertasunak esan: "gauzaren esan bearrak, itz-gozotan esatea".

Nik esango neuke: "gauzaren egikuntzan, erak, ados edo egokitasunezko urreratze aundian egon daitez gure jakituriaz" dala.

Orrek esan gura dau, gure eginkizunetako edertasunaren mailla agertzen dala, ludi onen, gai guztia bizitzarako daukana BEREN LEGE'az bizi-bizi dana BERAK gura-dauan arte, eta gure aurrekoak azieratik edestian zear izendatu egin dabezanak gaur arte, berezitasunean diranak izateko giza-maillan, abere arloan, gain-gauza maillan, euren jardun-bidea, izadiko indarraren joera eta abar; jakite doguzan neurrian.

Ezin besterik egin, erri-artze ekintza onetan, gure jakituriak ulertu dagian, zer edo zein da berezitasunezko mugi-aldia BEREN LEGETIK agertzen jakuna, beren aritik jokatzeko gure biziak bakez eta alai jarraitu dagian. Or! agertzen da, bizitzaren eta gure eginkizunaren edertasuna bete-betean bakez izateko, gure eginkizunak orren jakintza egokitasunezko egin-keraren orde.

Edertasuna, nortasun-gabekoa da; orregaitik ez da zerbait, izaki, edo dan gauza-bat. Edertasunak esan gura dau, begitu leikezala gauzak ondo eginda dagoen orduan, nor-baiten borondate oneko irreiparrea, ondo egindako margozki-bat eta abar, ikusteko gai edo duin dalako; baina batez-be, gure ezinbesteko gauzak egitekoetan beti esaten dauskuna da: "Ondo eginda badagoz, eta nolako indarrak borondate-on aldetik ipini doguzan, bete esaera egizkoa izan daiten".

Orregaitik ba, edertasuna da, gure arimako borondateen neurri-emaille, gure alegin onak orren neurrian agertzen diralako egiten doguzan gauzetan.

Ulertzeko erreza ba: "edertasuna, ordezkua dala, gure egin bearezko gauzetan, eskubide osoa daukielako gogomen guztiak, nai-gabe, askatasunean jaioteagaitik".

Erri baten, edozein gogamenaren edertasuna agertzen jaku beren atsegintasun guztian, nai erria edo gogamena osotzen dabezan guztiak, benetako zatidun edo arduradunak direzanean terrien edo gogamenaren arazoetan. Banaka izan ezgero, zatidunaren indarra, nai aundia izan ez-gero, be, uts aundia

ordezkaritzan izango zalako gure funtsezko balioan. Bizitza izan bear dau, gure funtsezko balio aundienakaz zuzenduta, beren edertasuna izatez-goragoko dala erakutsiaz; errien arima dalako ikusten dogun edertasuna. Eta ori, ikusi, zomatu eta igarri egiten dalako da: "edertasunagaz on-bizi egiten dalako, oneragarri orekan lortu egin-daunagaitik.

Lagun min eta maizu aundi-bat euki neban, gaur egunean-be nirekin dagona. Aita Santi Onaindia zan; eta gure alkarizketan esaten eustan: Guk egineko gaigauzakin, zugatzak, lorak, abereak, badaukie arimarik? Nire erantzuna beti izan zan bardina konturatu nintzanetik: Ludi onen gai guztia, JAINKO'ak emon eutselako bizitza, BEREN ARIMAREN borondate ezin-besteko bizitasunean dauka, eta gizarenak, nai ta naiezko ekintzatan, gure arimaren borondatezko neurrian agertzen diralako egiten doguzan eginkizunak! Ortik agertzen zalako gaia, azken baten, beti eltzen ginan gizaren nortasuna maillara, bere borondatez neurtuta. Zer ezanik-ez, bide orrek, uzte gabe, beti eroaten genduzala jakintzaren arlora, eta orregaitik naurtzen gendun gizaren izatea edo nortasuna, beren jakituria-gaitik.

Santik: Burutapen orregaz uzte dozu dana amaitu dala?

Nik: Ez!, JAINKOA'ren LEGEA ulertzeko uzte dot jaiotzen garala, eta aurrerantzean, bere adostasunean gure nai-ta naiezko eginkizunak beteteko!

Santik: Eta zer ikusten dozu JAINKOA'ren LEGE'an jokatu ez-gero?

Nik: Ludi onen bizitzak BEREN LEGE'az betetan diralako, izugarritzko edertasuna eredu-lez erakusten dauskuna; eta gizaki guztia, BERE LEGE'az oñarrituta dagoana, bere ordezkaritzan jokatu ez-gero!, Ludi onen berezitasunezko izatearen bakea ta askatasun guztia, ezin besteko edertasunean.

Gogora-zaitetz, gure arabasoak, beti euki ebezala JAINKOA eta LEGE ZARRA eredu-lez; eta nolako!, edertasuna euren izatezko nortasunean.

Beste edertasun-bat erakutsiko geunke ABERRI maillan, on-artzen ba-dogu, gure arabasoak emon euskuen eredu. Nolako lan bikaina ta ederra egingo gendun Ludi onek daukazan erri-berezi eta onartuko bai maltzur laterrien aurrean, Batikano ta guzti!; uko ezinean, esan dagian: OR EUZKALERRIA!!!

AGUR SANTI

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 1999'an AGORRILLA'ko 6'an

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

## Ipuintxua

## ONTZ JAKINTSUA

An, antxiña, Ifurralden,  
 zugatz zar bateko zuluán.  
 Ontz Jakintsuak eukan  
 beren etxe-entzun-tokia.  
 Egunez juatenzian  
 inguru areifako bizilariak  
 ifurriko ura batzera,  
 baiña be beste batzuk  
 ango ur otz ta gozoa eratera.  
 Dan areik, euren artian itzketanebeñ  
 danetako barriak, ezanera, eztabaidek ta barriketak.

Baña, an goian euan beti gertu  
 gure ipuiñeko Ontz Jakintsuak  
 entzunteko dan areik mintzatutenebena.  
 Ontz Jakintsuak oldoztuteneben:  
 – Ainbat ixildu ta adi nauenian  
 – Obeto entzumentot.

- Ainbat obeto entzutendoteian
    - Obeto ulertutendot.
  - Ainbat obeto ulertutendotenian
    - Geiago ikastendot.
  - Ainbat geiago ikastendotenian
    - Geiago jakintendot.
      - Orregaitik, neretzat onena da:
      - Ixill-ixillik egotia:
        - Obeto entzunteko!
        - Obeto ulertuteko!
- ta Obeto ulertu alaz  
 Geiago ikasteko!  
 ta geiago ikasi alaz  
 Geiago JAKINTEKO!.

ONTZATEGITXU  
 Caracas, Venezuela

Ipuiñ au dago idaztiña Bizkaiko antxiñako euzkeraan.



EUSKAL ASTEA  
 (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k aurtan be, urte guztietan lez, Bilbao'ko Udala-Batzaren diru-laguntzaz, EUSKAL-ASTEA egingo dau zemendiaren 29'tik abenduaren 3'ra. Itzaldia arratsaldeko zortziretan izango da. Gaiak eta izlariak sasoz iragarriko doguz.

EUSKERAZALEAK



IPUIN-SARIKETA  
 (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
  - Ipuiñak asmatuikoak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
  - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.
- Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bearko dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albat lasterren.
  - Sariak lau izango dira:
    - 1.ª 40.000 pezeta.
    - 2.ª 30.000 pezeta.
    - 3.ª 20.000 pezeta.
    - 4.ª 10.000 pezeta.
  - Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

## EUSKERA OSKAN

Badagoz egun ospetsuak arduradunaren bizitzan, JAINKOA'k ipini gaitun legearen arduratan ordezkokoak izateagaitik. Olakoak dira Oskan ikertzailezko lanetan Euskararen arloan, bere egia argi eta garbi agertu daiten Ludi onetan ibilli diranak. Kaizar-zaleek egin dabezan lan zakarrak euren sasi-jainkotasunagaitik, egiaren astarnak guzurrarekin gal-erazteko, il-obiren illuntasunetik argitara atarateagaitik.

Nire poza, zetan esanik ez: leenengo, arduradun aundiak eta jaun jakintsuakaz joateagaitik; eta bigarren: billatzen joan ginen argibideak ango agiritegian eskuratu genduzelako.

Guzti-au dator: Latiegi'tar Bixentek (apaiza eta irakasle izana bera, Gazteizko lanbide-ikastegian), irakurri ebenetik del Arko'tar Rikardo'k 1913'an argitaratu ebana Oska'ko Euskararen buruz.

Bixente atzera begitu-barik, Oskan dagoan agiritegira edo artxibora joan zan, ia nolako astarnak edo argiak billatu leikezan Euskalerriko nortasunaren izaera bere zentzuz agertu daiten.

Ondo-artua izan zan artxibo-zain edo agiri-zainaren aldetik. Onek, Balager eta Santxez'tar Federiko'rengana bialdu eban, ori baino jakintsu aundiagorik ez dagoala Aragoi guztian esanaz.

Poz aundiaz eta ondo baino obeto artua izan zan Bixente Federiko jaunaren aldetik, eta onek esan eutson: 1349'ko argibide (documento) baten aipamena izan zala, del Arko'tar Rikardo'k 1913'an argitaratu ebana. Argibide-orren bikoiztu-bat bialduko eutsela esan eutson, eta alan bete eban.

Oses'tar Xabier gotzain jaunarengana joan zan Bixente, eta berak be Euskaldun sendimendua eukala esanaz, Federiko jauna baino jakintsuagorik ez dagoala gauza orretaz eta benetako egi-zale dala esan eutson.

Bixente'k, eten-bako lanarekin ortik aurrera, beste argibideen astarnak artu zituan; adibidez: XIV, XV, XVI eta XVII gizadiko argibideak, eta EUSKERAZAINTZA'ko batzarrean ikusi-arazi eban, argibide orrekin bikoiztuak (fotocopias) etxera ekarri bear zirela esanaz.

Bixente eta Joxe Mari (LATXAGA) geratu ziran argibideen billa joateko, eta ni gurdiazen gidari, eta agiritegian

lan egiteko. Dana Garmendia'tar Mari Karmen, gure Eusko-Jaurkintza'ko sail-buru danaren laguntzaz.

Lortu genduzan ain garrantzizko argibideen bikoiztuak, XVII gizaldian Oskan Euskaraz berba egiten zala esaten dabenak, eta pozez beterik etxera ekarri genduzan agiri oneik.

Nundik-nora edo mungo erroetatik artu ebazan 86 urteko gizon onek (Federiko jauna) Euskeraren zaletasuna edo ardurak? Ba..., begitu nortzuk agertzen diran emen. Zaldu-ban edo gaur Zaragoza deritxon Aragoiko uri-nagusian, ikastetxenagusian edestia ikasten egon zanean, bere lagun minak, Erronkariko Estornes Lasa'tar Joxe ta Mariano ziran. Auek izan ziran Euskereagaitik ain zaletasun sakona eta ardura sartu eutsoenak. Berarekin mintzatzen egoten ginean, sarritan esaten euskun: bera, beti arduratuta egon dala, euren sustraiak zeintzuk diran jakiteko egarriaz.

Gure, Oska'ko urian ibiltan ugari ikusi genduzan ormetan margoak, au esaten ebenak: "Aragon libre, Aragon es una nación, PP y PSOE españoles", eta abar. Nik, Bixente eta Latxaga'ri esaten neutsen orduan: "onek be, badoaz erri-lez askatasunera", euren erantzuna izaten zan: "baina orrek anarkistak dira". Bai bere-ala nire bigarren itauna: "Federiko jaunaren sustraian billaketa be-bai?

Nik, ikusi dotenagaitik, ondorio bakarra agertzen-jat nire bururakizunetan: Zergaitik ez doguz bialtzen (ez dakit bialtzen diran ala ez) gure edestilari, paleontologo eta antzekoen barriak agiri-tokietara, orrek bear-doguzan argibideok danon argitan ezartzeko? Ostikada galanta litzake, Euskara eta Euskaldunak illobiren iluntasunean sartu gura-dabezenentzat; eta bete gure ardura nagusia, SABINO'k argi esaten ebanetik: "Alboko eta Ludi onek daukazan erri guztiak argi ikusi dagien EUSKALERRIA BIZIRIK-DAGOELA ta BIZI EGIN GURA-DAUALA", eta ipini egin doguzela daukaguzan gogo ta indar guztiak gure NORTASUNA LORTU-ARTE. Guztiz beartuta gagozelako JAINKO'a-gandik BEREN LEGEA'ren bidetik ASKATASUNA LORTZEKO.

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 1999'an DAGONILLA'ko 25'an

AGIRI AU IRAKORRALA DAROAGULA JAKIN DOGU ESTORNES LASA'TAR BERNARDO EUSKALZALEA IL DALA (G.B.) GURE SAMINTASUNA AGERTZEN DOGU (1999-08-12)

IDAZKOLAKOAK

# ORI DOK EUSKERA, ORI!!

## Berba-aurrekoa

Aurre Apraiz'tar Balendin jaunaren "Odolezko laztana" deritxan lanaren bigarren iruzkina doakizu, irakurle (ZER, jorrailla-aprilla, 1999).

Aurreko iruzkinean XVI garren mendean erabilliriko aditzjokoak datozela esan genduan Aurre Apraiz idazlearen idazkunean, eta zortzi beñik-bein aitatu be egin genduzan.

Gaurko bigarren zati onetan, barriz, XVIII garren gizaldiko jokoak idazlan beratan aurki daitekezenak argitara ekarriko doguz.

Orretarako, aurreko lantxoan egin genduan, XVIII garren gizaldian zear euskal aditzaren arlori zean aldakuntza itzela irakurleen begi-aurrean agerrazotea, bear-bearrezkoa dala uste dot, argibide izan dakien.

XVI garren mendean zear euskal aditzaren esparrura etorri zan aldaera aditz iragangaitzean (intransitibo) gertatu zan, eta ori egite-razko (indikabozko) orain-aldi eta leen-aldiko NOR-NORI jokoe-tan.

XVIII garren gizaldian mamindu zan aldakuntza itzela, ostera, aditz iragangaitzean eta iragankorrean (transitibo), biotan, sendotu

eta indartu zan, eta ez NOR-NORIdun jokoetan soilik, baita NOR-dun, NOR-NORKdun eta NOR-NORI-NORKdunetan be.

Au dala eta, XVIII garren gizaldian zear aditzaren barrutian sortu eta erne zan aldakuntza askoz aundiagoa eta euskerarentzat galgariagoa izan genduan XVI garren mendean mamindu zana baiño, irakurleak berak ikusi dagikenez.

Aurreko idazlanean edo iruzkinean egin genduan ibilbide berbera egingo dogu, ondorenez, iruzkin au josikeran.

### Auxe:

- XVIII garren mendean erabilli oi ziran aditz-jokoak eta gure egunotan erriaren aozko erabilleran darabilguzanak - eta idazleak be bai - agirian ezarriko doguz, irakurleai argibide izan dakiezan, leenengo.
- "Jakingarri" deritxakezan oarkizunak etorriko dira, urrengo.
- Eta XVIII garren mende bereko aditz-jokoak Aurre Apraiz'tar Balendin adiskidearen idazkunean aurki daitekezenak aitatu-ko, azkenengo.

ON EGIN DAIZULA, irakurle!!

### XVIII GARREN MENDEAN ZEAR JAZO ZAN ALDAKUNTZA ADITZ IRAGANGAITZA NORdun adizkiak (pazientedunak) ORAIN-ALDIA

#### XVIII GARREN MENDEAN (Subjuntibozko baldinera)

(Flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo, según Azkue)

NI	(etor)	banadi/banaite
ZU	(etor)	bazadiz/bazaite
A	(etor)	badadi/badaite
GU	(etor)	bagadiz/bagaitez
ZUEK	(etor)	bazadize/bazaitze
AREEK	(etor)	badadiz/badaitez

#### GURE EGUNOTAN (Indikatibozko adizkiak)

(etorten)	banaz
(etorten)	bazara
(etorten)	bada
(etorten)	bagara
(etorten)	bazaree
(etorten)	badira

#### NOR-NORIdun adizkiak (paz.-datibodunak)

<b>NIRI</b>		
ZU	(etor)	bazakidaz
A	(etor)	badakit
ZUEK	(etor)	bazakidaze
AREEK	(etor)	badakidaz

<b>NIRI</b>	
(etorten)	bazaiataz
(etorten)	baiat
(etorten)	bazaiataze
(etorten)	baiataz

<b>ZURI</b>		
NI	(etor)	banakizu
A	(etor)	badakizu
GU	(etor)	bagakizuz
AREEK	(etor)	badakizuz

<b>ZURI</b>	
(etorten)	banaiatzu
(etorten)	baiatzu
(etorten)	bagaiatzuz
(etorten)	baiatzuz

<b>ARI</b>		
NI	(etor)	banakio
ZU	(etor)	bazakioz
A	(etor)	badakio
GU	(etor)	bagakioz
ZUEK	(etor)	bazakioze
AREEK	(etor)	badakioz

<b>ARI</b>	
(etorten)	banaiako
(etorten)	bazaiakoz
(etorten)	baiako
(etorten)	bagaiakoz
(etorten)	bazaiakoze
(etorten)	baiakoz

<b>ZUEI</b>		
NI	(etor)	banakizue
A	(etor)	badakizue
GU	(etor)	bagakizuez
AREEK	(etor)	badakizuez

<b>ZUEI</b>	
(etorten)	banaiatzue
(etorten)	baiatzue
(etorten)	bagaiatzuez
(etorten)	baiatzuez

# EUSKEREA

## XVIII GARREN MENDEAN

### AREI

NI	(etor)	banakie
ZU	(etor)	bazakiez
A	(etor)	badakie
GU	(etor)	bagakiez
ZUEK	(etor)	bazakieze
AREEK	(etor)	badakiez

## ADITZ IRAGANKORRA NOR-NORK adizkiak (pa.-egilledunak) ORAIN-ALDIA

## XVIII GARREN MENDEAN

### (Subjuntibozko baldinera)

(Flex. hipotéticas de subj. próximo, Azküeren arabera)

### NI

ZUK	(ekar)	banagizu
AREK	(ekar)	banagi
ZUEK	(ekar)	banagizue
AREEK	(ekar)	banagie

### ZU

NIK	(ekar)	bazagidaz
AREK	(ekar)	bazagiz
GUK	(ekar)	bazagiguz
AREEK	(ekar)	bazagiez

### A

NIK	(ekar)	badagit
ZUK	(ekar)	badagizu
AREK	(ekar)	badagi
GUK	(ekar)	badagigu
ZUEK	(ekar)	badagizue
AREEK	(ekar)	badagie

### GU

ZUK	(ekar)	badagizuz
AREK	(ekar)	bagagiz
ZUEK	(ekar)	bagagizue
AREEK	(ekar)	bagagiez

## XVIII GARREN MENDEAN

### ZUEK

NIK	(ekar)	bazagiedaz
AREK	(ekar)	bazagiez
GUK	(ekar)	bazagieguz
AREEK	(ekar)	bazagieez

### AREEK

NIK	(ekar)	badagidaz
ZUK	(ekar)	badagizuz
AREK	(ekar)	badagiz
GUK	(ekar)	badagiguz
ZUEK	(ekar)	badagizue
AREEK	(ekar)	badagiez

## NOR-NORI-NORK adizkiak (paz.-egi.-dat.-dunak)

### NIRI

ZUK	(gauza bat ekar)	badagidazu
	(gauza bat ekar)	badagit
	(gauza bat ekar)	badagidazue
	(gauza bat ekar)	badagide

### ZURI

NIK	(gauza bat ekar)	badagizut
AREK	(gauza bat ekar)	badagizu
GUK	(gauza bat ekar)	badagizugu
AREEK	(gauza bat ekar)	badagizue

## GURE EGUNOTAN

### AREI

(etorten)	banaiake
(etorten)	bazaiakez
(etorten)	baiake
(etorten)	bagaiakez
(etorten)	bazaiakeze
(etorten)	baiakez

## GURE EGONOTAN

(Indikatibozko adizkiak)

### NI

(ekarten)	banozu
(ekarten)	banau
(ekarten)	banozue
(ekarten)	banabe

### ZU

(ekarten)	bazaudaz/bazaitut
(ekarten)	bazauz/bazaitu
(ekarten)	bazagu/bazaitugu
(ekarten)	bazauez/bazaitue

### A

(ekarten)	badot
(ekarten)	badozu
(ekarten)	badau
(ekarten)	badogu
(ekarten)	badozue
(ekarten)	badabe

### GU

(ekarten)	bagozuz
(ekarten)	bagauz/bagitu
(ekarten)	bagozue
(ekarten)	bagauz/bagaitue

## GURE EGUNOTA

### ZUEK

(ekarten)	bazauedaz/bazaituedaz
(ekarten)	bazauez/bazaitue
(ekarten)	bazaueguz/bazaituegu
(ekarten)	bazaueez/bazaituee

### AREEK

(ekarten)	badodaz
(ekarten)	badozuz
(ekarten)	badauz
(ekarten)	badoguz
(ekarten)	badozue
(ekarten)	badabez

### NIRI

(ekarten)	badaustazu
(ekarten)	badaust
(ekarten)	badaustazue
(ekarten)	badauste

### ZURI

(ekarten)	badautsut
(ekarten)	badautsu
(ekarten)	badautsugu
(ekarten)	badautsue



## ARI

NIK	(gauza bat ekar)	badagiot
ZUK	(gauza bat ekar)	badagiozu
AREK	(gauza bat ekar)	badagio
GUK	(gauza bat ekar)	badagiogu
ZUEK	(gauza bat ekar)	badagiozue
ARREK	(gauza bat ekar)	badagioe

## GURI

ZUK	(gauza bat ekar)	badagiguzu
AREK	(gauza bat ekar)	badagigu
ZUEK	(gauza bat ekar)	badagiguzue
AREEK	(gauza bat ekar)	badagigue

## XVIII GARREN MENDEAN

## ZUEI

NIK	(gauza bat ekar)	badagizuet
AREK	(gauza bat ekar)	badagizue
GUK	(gauza bat ekar)	badagizuegu
AREEK	(gauza bat ekar)	badagizuee

## AREI

NIK	(gauza bat ekar)	badagioet
ZUK	(gauza bat ekar)	badagioezu
AREK	(gauza bat ekar)	badagioe
GUK	(gauza bat ekar)	badagioegu
ZUEK	(gauza bat ekar)	badagioezue
AREEK	(gauza bat ekar)	badagioee

## ARI

(ekarten)	badautsat
(ekarten)	badautsazu
(ekarten)	badautso
(ekarten)	badautsagu
(ekarten)	badautsazue
(ekarten)	badautsoe

## GURI

(ekarten)	badauskuzu
(ekarten)	badausku
(ekarten)	badauskuzue
(ekarten)	badauskue

## GURE EGONOTAN

## ZUEI

(ekarten)	badautsuet
(ekarten)	badautsue
(ekarten)	badautsuegu
(ekarten)	badautsuee

## AREI

(ekarten)	badautsuet
(ekarten)	badautsezu
(ekarten)	badautse
(ekarten)	badautsegu
(ekarten)	badautsezue
(ekarten)	badautsee

## JAKINGARRIAK

1.- Ikus EUSKERAZAINTZA, 1995, urtarrilla-epailla, 16-27 orri.

2.- Itzelezko ondamedia etorri zan bizkaierazko aditzaren esparrura aldakuntza aundi au zertu zanean. Aditz iragangaitzean eta iragankorrean, bietan, zertu be egin zan. "EDIN" aditz laguntzaille iragangaitzeko eta "EGIN" bizkaierazko laguntzaille iragankorreko oian aberats, loratsu eta adartsua soildurik geratu zan, "buru-soil" baten antzera. Eguzkiaren argi-izpietzako garbi-garbi geratu bailliztan.

"Banadi, bazadiz, badadi"... eta abar adizkiak "edin" laguntzaille iragangaitzaren jokoak dira. Eta "badagit, badagizu, badagi"... eta abar, barriz, "egin" laguntzaille iragankorrarenak. "Lindísimas flexiones, pero sin vida en el pueblo, si bien las oye con agrado y las entiende muy bien", diño Azkue aundiak, au da, adizki txairo-txairoak eta gogo bete-beteko gozagarrak euskaldun batentzat.

3.- Gipuzkoerazko aditzaren oianera be antzeko ondamedia etorri zalakotan nago. Bizkaierazko "egin" laguntzaillee iragankorraren orde, "ezan" laguntzaille iragankorraren jokoak darabillez gipuzkoeraz eta gainontzeko euskalkietan.

**Adibidez: Orain-aldia:** (ekar) **badezat, badezazu, badeza, badezagu, badezazute, badezate.** **Baldin-era:** (ekar) **baneza, bazeneza, baleza, bagezeza, bazenezate, balezate.** Eta NOR-askotarakoa: (ekar) **banitza, bazenitza, balitza, bagenitza, bazenitzate, balitzate.** Adizkiok ere orduantxe bazterreratu zirala dirudi, bizkaierazko "egin" laguntzailleenak ondatu ziranean.

4.- Zergaitik etorri ete zan ondamedia au euskal aditzaren barrutira? Gaztelaniaren eragiñagaitik, erantzuten dausku zalantzarik baga Azkue jakintsuak. Bai, makiñatxu bat kalte egin dautso gaztelania orrek gure euskera gaixo oni. Makiñatxu bat, gero! Onantxe izan arren be, or etorriko da norbait zarataka eta arrantzaka, gaztelania "dontsu" ori galtzeko arriskutan dagoala eta neurriak artu bear dirala... Sekula olakorik entzuteko be! "Imperio"ko izkuntzak bakarrik bizi bear, apalagoak diranai ozta-ozta bizi izateko arnasa apur bat artzeko eskubidea bera be ukaturik. 300 milloegun lagunek ao-miñean darabillela eta arroarro!

Alan izanda be, ezin ase. Or untzea! Lurbira gutzia beretzakotu

nai, "gatz" apur bat eta "antoxin-bete ur" beste berbakuntzai kendurik. Neu agintari eta beste guztiak neure oiñazpiko eta menpeko, eta kitto! Gizakiaren gatxa eta griña gaiztoa auxe!!

5.- Azkue irakasten dauskunez, eun urte baiño geitxuago dala, guztiz arruntak ziran onango adizkiok: "adoratu banagizu"... "egingo dau al badagi"... gure egunotan onan esango dogu: "adoraten banozu"... "al badau"... Bai, adizki txairook eta dotoreok galdu jakuzan amazortzigarren gozaldian zear, amaseigarrenean eta amazapigarren asieran beste batzuk galdu ziran. Aditzak beste galtzerik izan ez baleu be! (Morfología, 762 orri.)

**Aurre Apraiz Baladin jaunaren aitaturiko idazkunean datozan XVIII garren gizaldiko adizkerak**

- "senetik urtenda **ba'legoan** (ba'lego lez)"...
- "Bizirik geratu **ba'nendi** (geratuko ba'nintz)"...
- "Guda zikin onetan jausi **ba'nedi** (jausiko ba'nintz)"...
- Jausi ez **ba'nadi** (jausten ez banaz)"...
- "Guda anker onetan jausi **ba'nadi** (jausten banaz)"...
- "eta eldu **badaizu** (elitzen baiatzu)"...
- "Neure bizia amaitu **ba'ledi** (amaituko balitz)"...

## Amaiera

Aditzaren ikus-bitartetik arakututa bakarrik ez, beste ainbat alderditatik begiratu be, Aurre Apraiz Baladin jaunaren "Odolezko lantzana" izeneko idazkuna aztergarri da, adibidez, iztegiaren alderditik, berba-kopuru aberatsa dakar eta, euskeraren joskeraren ikus-bitartetik, eta abar. Aztertzailleak ez leuke uts-utsik urtengo.

XVIII garren mendeko adizkiok, gaur-eguneguz erriaren aozko erabilleran galdurik doguzan arren, idazlaneran sarriago erabilli bear gendukezala dirudi, Azkueren arabera, erriak oso ondo ulertzen dauzalako, batetik, eta gure garai onetatik ain urrun ez dagozalako, bestetik. Arazo onetan jarraibide dogula deritxat "Orduen liturgia" izeneko eleiz otoitz-liburua.

Begoña, bagillak/ekainak 6, 1999  
PEDRO PUXANA, arabarrak

---

## ARANA GOIRITAR SABINEK EGINDAKO ESKAERA (Bakio)

---

Denbora askotxu igaro da pasa dan mendetik ona eta, beraz, edozein bidek aldaketa frango izan daitez, gaur egun Bakioko bide nagusia dogun bideak lez. Zubiaur eta San Pelaio auzoak batzen dauazan bidea Sabino Aranak orain dala mende bete egindako eskaerearen emoitzea dogu. 1899.eko zemendiaren 9an Sabino Aranak eskaera bat aurkeztu eban Bizkaiko Foru Aldundian Bermeoko Zubiaur eta San Pelaio auzoak lotzeko asmoagaz.

Sabino Arana 1865. urtean jaio zan Abandon. Amazazpi urte ebazala, beraren anaia zan Luisen eskutik euskal abertzaletasunaren pentsamenduak jo eban eta ausnarketa sakonaren ostean, bizitza osoa Euskal Aberria birrerakitzen emotea erabagi eban. Euskerea ikastea izan zan aren leenengo lana. Euskalerra edo EUZKADI, berak Euskalerrari emondako izena. Euskalerraren eta euskerearen alde lan mardoa eginda, beraren eritxi politikoakaitik ainbat bider espeteratua izan zan. Gero, Sukarrieta il zan 1903. urtean.

1898. urtean Sabino Arana, Euzko Alderdi Jeltzalea ordu-rako berak eratuta, alderdi orren ordezkari lez Bizkaiko Foru Aldundian sartu zan eta bertan euskal abertzaletasunaren aurka egozan guztien aurka (sasoi atan alderdi guztiak) egin bear izan eban.

Lan andia egin eban Aranak Foru Aldundian, gizarteko beste arlo askotan lez, era guztietako gaiak jorratuz eta eska-

bideak eginez, esaterako: "Urrengoko urteetan San Inazio jaia ospatzeko eskaera", "Koplak saltzen dabezanei eta musika tresnak jotzen dabezanei gaineko zergea ezartea", "Bideak eraikitzeke proposamena" eta abar, eta abar.

1919. urte ingururako Zubiaurraldetik Olaskoetxeraginoko (Olaskoagatarren etxea) bidea baegoan eginda. Kontratistea Landaluze izeneko gizon bat izan zan. Pare bat urte beluago asi ziran bidearen bigarren zatia egiten, au da, Olaskoetxe eta Urizarreta batuko ebazana, Eduardo Garai dalako kontratistearen eskutik, ain zuzen be. Ez zan lan erreza izan, sasoi aretako eskuarte eta bitarteko urriak kontutan artuta. Baina apurka-apurka bidea egiten joan ziran. Portu aldean arriak ataraten ebezan, astoz eroanda, bidea eraikitzeke. Karea KARABIA aldetik ataraten zan, bai bidea bai Olaskoetxeke zubi egiteke be. Sasoi atan, laneskurik merkeena Ondarreko zubi aldean lan egiten eben karabineroena izaten zan, areek diru gitxiren ordeze lan egiten eben-eta. Urte batzuk geroago, bidea Matxixakoragino luzatu eben.

Belaunaldirik belaunaldi bidea eraikitzen joan ziran. Sabino Aranak egindako eskaera aretatik gaur egun ezagutzen dogun bidea lortu artea. Eta aor daukagu edozein momentutan Zubiaurraldetik San Pelaiora tipi-tala ibilteke bidea.

Ainara Madariaga

---

## ITXASOKO AREA DALA TA EZ DALA (Bakio)

---

Getxoko Arrigunaga aretzea egoera txar-txarrean dago. Bizkaiko Foru Aldundiak aretza ori birreskuratutea erabagi eban. Orretarako egokia dan area bertara eroatea eta bertan zabalduetea izan zan Aldundikoek aukeratutako konponbidea. Zenbat eta 210.000 m.<sup>3</sup> are. Are kopuru andi ori nondik atarateko ikerketak egiten ibili ziran. Alan bada, arearen kalitatea dala, ingurugiroan kalterik txikiena egiteke dala, Bakio inguru aukeratu eben are kopuru andi ori atarateko.

Bakio aurreko itsas ondoan 2 milioi m.<sup>3</sup> are ei dagoz. Aldundiak orreei zati bat kendutea eta Arrigunagan zabalduetea erabagi eban. Orretarako, leenengo ta bein ingurugiroan zelango kalteak sortu leitekezan, aredun ondoaren zeaztasunak eta beraren ganeko aolku teknikoak jakiteko AZTI institutua kontratatu eben. Bein ingurugiro eta itsasoari buruzko argibide guztiak eskuan abezala, SENER enpresari emon eutsen

are atara eta Arrigunagan zabaldueteke proiektu tekniko diseinatuteke bearra. Bearra bera egiteke kontratua, ostera, CONSTRUCCIONES MOYUA SA eta OBRAS Y DRAGADOS enpresek sortu eben AET-ari emon eutsen.

Arteragoko asteotan Bakioko AREAGA aretzearen aurreko uretan ikusi izan dogun itsasontzi gorria azkenik aitatutako enpresa talde orretakoa da. Itsasontzi ori itsas ondo arakatzen eta andik area ataraten ibili da. Onezkero, 20.000 m.<sup>3</sup> are atara ei dabez. AZTI institukoan berbetan, ez litzake 25 m. baino gitxiagoko itsas sakonerako arerik atara bear.

Itsasontzi gorria Bakioko uretan agiri ta bertan, erritar eta udatiar asko asarratu, sutu eta aurka agertu dira. Surfistek manifestazino bi eratuaz ganera, Bakioko Udalak Aldundia, AZTI eta SENER erakundeei jendaurreko batzar bitara deitu deutse. Erakunde orreetako teknikoek arazorik ez dala egongo

bein eta barriz esan arren, batzar orreetan erritarren asarre bizia eta susmo txarrak agirian be agirian lortu ziran. Antza, teknikoek markatutako lekutik kanpo, baita 25 m. baino gitxiagoko sakoneran be area ataraten ibili dira. Alan bada, ingurugiroari egin leitekion kaltea andia izango dalakoan zabal-zabal dago erritarren artean. Azkenengo batzarrean, martiaren 25ean, Udalak eta an batutako erritarrek, ago batez, itsas ondotik area atarateko bearrak bertan beera izteko eskatu eben. Ara geiago, Arartekoagana laguntza eske jo dabe erritar batzuk.

Inongo aldetik amarrurik ez dala egongo jakiteko, areatarate lekuan diralako kutxa baltzak sartuko dauz AZTI institutuak itsapean. Aldundiak, beraren aldetik, itsas biosferaren ganeko

beste ikerketa bat egiteko agindu dau. Orregaz batera, erritarrek aldiro-aldiro joan aal izango dabe itasontzira, an egiten diran bearrak legezkoak diran ala ez euren begiez ikusteko.

Beste alde batetik, Armintza eta Bakioren arteko biotopoa jogoteko orain dala gitxi artutako ebazpenaren aukarkoa izango ei litzake Aldundiak aurrera darabilan are-atarate ori. Aldundiak, baina, ez dau bearrak lotuteko berbarik entzun gura, ez eta ori egiteko asmorik be. Eta aurka dagozan erritarrei epaitegira joteko esan deutsee, besteko barik, Aldundiko ordezkariak.

Iniaki MARTIARTU

---

## EMEROTEKA

### (Bakio)

---

**EL CORREO** egunkariak aurtongo martiaren 30eko Urdaibairi buruzko geigarrian agertutako alkarrizketea dakartsuegu bertan.

**Bakio**ko gizarte bizitzan euskerearen erabilera eta eguneroko artuemonak euskaldundu daitezcan, **JOSEBA TERREROS**, Udaleko Euskera Teknikaria dogu arduradun. Gazte orren esanetan, **Bakion** euskerea bizi-bizirik dago, naiz eta erderearen eraginak kalte andia egin. Euskal izkuntzeari buruz egin diran ikerketen arabera, **Bakio** oso leku egokia da euskerearen erabilpena andintzen ikusteko.

#### Euskerea bizirik dago Bakion?

Bai. Bizi-bizirik dago Bakion, baita inguruko errietan be. Beste kontu bat da, euskereak urteetan jasan bear izan dauan bazterketeak eragina izan dauala, kaleko erabilera bearko leuken besteko altua ez izateko. Dana dala, etxe barruko eguneroko bizi-moduan, au da, familiarrean oso bizirik dago. Gure erronka nagusia, momentu onetan, euskera ori etxeetatik atara eta gizarte bizitzan sustatzea da. Ori bultzatzeko bearrean gabiltz eta ez daukat zalantzarik ertaineko epean egoera naiko obetuko dana.

#### Udaldia igaroten datozanek erdera utsean egiten dabe berba. Ba ete dauka orrek bakiotarrek berba egiteko eran eraginik?

Udan errira 13.000 pertsona urreratzen dirana kontutan artu bear da, geienak Bilbo eta aren inguruko erri erdalduetakoak. Beraz, ulergarria da udako artuemonak, geienbat, erderaz bideratzea. Orrek, jakina, eragina dauka kultur erreferentziak eskuratzeko. Edozelan be, azken urteotan aldaketak igarri dira, eta gero eta udatiar geiagori entzuten jako euskeraz, batez be, umeak tartean dagozanean.

#### Udaletxean euskerarik erabilten da?

Daborduko, euskerazko funtzionamendua imini da abian. Orrek esan gura dau barruko ainbat aigiri euskera utsean idazten dirala, berbarako, akta eta zinegotziei emoten jakezan informazinoren batzuk. Era berean, jendaurrean agertzen diran iragarki edo bestelako informazio idatziak be elebitan egin oi dira, beti be, euskerari leentasuna emontez. Azkenik, administratu alfabetatuei tramitazioak euskera utsean emoten jakez, eurak orregaz bat etorri ezkeru.

#### Badago Bakion euskerari buruzko ikerketaren bat eginda?

Bai. Igaz SIADECO enpresea arduratu zan merkataritza arloko eta Bakioko kultura, astialdi eta kirol taldeetako izkuntza egoera ikertzen. Datuak oso interesgarriak dira eta garbi adierazoten dabe erabilera oso altua ez izanda be, Bakio aukera ezin obeak eskaintzen dauazana euskerearen agozko erabilpena anditzeko. Iñaki Gamindez Bakioko berbakereari buruz idatzitako liburuan be, bertoko izkerea ze aberats eta joria dan ikusiko da.

#### Adinaren arabera, zeintzuk dira euskera geien erabilten daben taldeak?

40 urtetik gorakoek euskera geiago egiten dabe adin orreetatik beerakoek baino. Utsunerik nabariena 25etik 35era bitarteko adintaldean dago. Baina ori ez da Bakioko kontua bakarrik, izan be, pertsona orreek erderaz (sasoi artan ez egoan beste irakaskuntza eredurik) ikasi bear izan dabe eta ganera une orretan euskerearen kultura daborduko makaltzen asia zan espainiar diktadurak urteetan bultzatutako izkuntz zapalketea eta bazterketea zala eta.

ZIDURI

## EUSKALERRIA: EDESTI-GIOIA (III)

### Baskonia'ko duke-erritik pirenetako erreino'ra

Karlo-Magno'k Ebro'k ballaran ioiñi nai du bere Erreinuaren muga eta Zaragoza'ko moro biurriak eskaturik, an joan zan oudaroste aundi batekin, uria artzeko asmotan.

772 urtearen udaberrian irten zuen eta Katalunia'ko Le Perthus bidetik sartu zan zati bat eta bestea Orreaga'tik. Onen gidaria berbera zan, 36 urte zituela, bere Korteko izarririk aundienak lagun zituela. Bi gudarosteak batuta ekin zion Zaragoza menperatzeko; baña, ez zuen ezer lortu. Etxerakoan Iruña'ra gerturatu eta arri-esiak ausi zitun eta lurrera bota 'aurrerantz sekula jeiki ez ditezen aurka' (diote Errege-kronikak).

Dagonillaren (Abustuaren) 15'ean, 778'garren urtean, eldu ziran Orreaga gañera, andik Luzaide'ra jeisteko. Gudarostea, bi mendien arteko estu-gunean sartu danean, ekin diote euskaldunek atzeko aldearen aurka burruka bizian. Frankoek beuren burnizko jantzi zaar aiekin, ezin dira mogitu ere; euskaldunek, berriz, gona motza eta abarka manterekin, aizea baño ariñago dabilta. Gudarostea, zuloan sartuta, ezin du atzera egin, atzeko aldearai laguntzeko. Triskantza aundiak izan ziran eta gudari nagusi askok utzi zituen euren ezurak Orreaga'n. An ildako giza-seme nagusien izenak. 830'en inguruan eman zituzten.

Karlo-Magno'k Iruña'ko arri-esiak lurrera bota zitueanean, orduan euskaldunek alkatu ziran Orreaga'ko artan zer egin eta nola eraso asmatzeko. Ballarai-ballara jo zuten mezua, alkar bildu, eraso eta gauez berriro etxera basoetan zear. Nundik etorri ziran eta nora joan ziran, Frankoek ez zuten sekulan jakin. Latiñez zebiltzan berriak jakin nairik, euskararen berririk ez zekiten, basoak itzal aundikoak eta euskaldunek bertako nagusi. Orra Karlo-Magno aundia parregarri. Bere illoba Erroalde an gelditu zan gorputz. XIII garren eunkian, sartuko zan ipuiñaren munduan.

#### Baskonia'ko Duke-erria

Frankoek sortu zuten euskaldunak mendean artzeko (602). Lupo (Otxoa) izan zan lenengo Dukea. Ondoren etorriko da Eudon Aundia eta Baskonia Akitania'tik aldetzen da, Karlo Magno erege izendatzen dutenean, eraso egingo die Akitania eta Baskonia'ri... Eraso oiek

ez dute azkenik izango bera il arteko guztian (814). Bi gizaldi auetan (600-800) betiko leloa: ifarretik eta egoaldetik euskaldunen aurka erasoak: euskaldunak mallua eta ingudearen tartean.

#### Zerki berri bat: Ludobiko Pio

Karlo-Magno'ren eriotzean. Ludobiko Pio bere semea. Akitania eta Baskonia'ko errege, izendatzen dute ondorengo. Bere anai Pipino I'ari usten dizkio Akitania eta Baskonia, biak.

Ludobiko'ren lenengo lana izan zan euskaldunak menperatzea; gero Iruña'ra jo. Etxerakoan, ba'da ere, aufeko Orreaga'ko sarraskia gertatu ez zedin, berarekin eman zitun emakume eta ume euskaldunak.

Ludobilo Pio'k ereino guztien batasuna egiten du eta Baskonia'ri menpetasun eskatzen dio bi gauza auetan: bere kontura iñorekin gerran ez astea, baldin erasoren bat jasotzen ez ba'dute; bestetik, berriz, ezin zitekean enbaxadorerik euki, gauza bigarren maillakoentzat baizik. Arazo auengandik sortu ziran geroko iraultza eta matxinadak. Egoera onetik jaio zan Iruña'ko Pirenee-Erreinoa.

Ludobiko Pio Iruña'ra dator iraultza itzaltzeko; baña, uria utsik aurkitzen du. Bueltan etxerako datorrenean, (834) Orreaga'n daude zai Enekeko Arista, Tudela'ko moroen bere senitartekoak, eta Aragoi'ko lagunak... Karlo-Magno'rena gertatu zan berriro.

Arrezkero Iruña izango da euskaldunen uri nagusia eta askatasun aldeko burruka guztien ardatza. Gaitza eta zalla da erabakitzea noiz asi zan Enneko Arista bere nagusitasuna erakusten eta danen agintaritzaren. Enneko edo Iñigo Arista ("Aritza", bere sendotasuna gaitik) Ximeno'ren semea zan. Ortik datorkio abizena Ximenez edo Semenez; euskeraz. Semeno'ena. Bere aita frankoek il zuten burruka batean. Apurka-apurka meditar artzai aiek, burrukan oituak, bere buru bezela artu zuten; dana dala eta dena den, 816'tik eta 823'ra bitarte orretan, Iñigo Aritza'k zuen Iruña'ko agintaritzaren eta bere erreinoa Pirenee-mendeartean zabaltzen zan; kanpotarrentzako toki alrrebesak.

Alaba bat eman zion Tudelako Benekasin moro bateri; kristauak ziran baña moro biurtu eta erreino baten buru ziran. Aiekin eta Aragoi'koekin pakea nai zuen.

### Enneko Aritza (Iñigo Arista)

Erronkari'ko Isaba erriari onura asko ekarri zizkion, berari babesa emar ziolako burrukaaldi larrietan. Iruña inguruko erriak, mugan zeudenak, sendotu zitun arri-esiz, etsaien eraso-alditarako. Caro Bajora'k dionez Naparroako erriska askok beuren sorrera erromatarren "fundi"etan dute, baserri aundie aietan...

Urteak zituenean, adiñeko zanean, bere anai gazteagoa Garzez edo Gartzia Ximenez, artu zuen erregetzarako lagun eta Ifar eta Ego'ko mugak utzi zitun bere eskuetan. Ego'tik moroak eta Ifarretik frankoak; gerora, baita Wikingoak ere. Auek ibaietatik sartzen dira eta Adur ibaitik Akitania eta Baskonia'n zear Iruña'raino eltzen dira 855'garren urtean. Gartzia Ximenez preso artzen dute eta 70.000 dukat ordaintzera biartzen dute. bost urte beranduago, ego-aldetik datoz moroen erasoak, preso asko arturik Iruña inguruan.

Arista'ren ondoren Gartzia II Iñiguez (Enneko'rena) dator eten gabeko moroen aurkako burruketan. Alako batean Preso artzen dituzte Erregearen seme-alaba Fortun eta Iñiga (Enneka), Cordoba'ra eramanez. An Iñiga moro erregaren semearekin eskontzen da eta denborakin Abderraman III'garrenaren amama izango da. Iñiga'ren senarra errege izendatzen dutenean, bere koñati Fortún aske utziko du eta Iruña'ra bialdu. Fortun'eri aita il zitzaionean, bera izendatu zuten Iruña'ko errege, Fortun Garzes I, Monje (852-905) izenarekin. Zaartzaroan Leire'ko moje-etxera baztertu zan. Bere orde, anaia errege.

### Santxo Garzes I (905-926)

Bere mendekoen benetako buruzagia. Gaskuña, lengo Baskonia, bere jabetasuna lortu naian, Kodea il zitzaie-nean, Santxo'ri eskatu zioten beuren errege izateko. Pirenee mendiak gudarostearekin igaro Gaskuña'ko lurak artu eta bere seme Santo izendatu zuen Konde, Garona'tik Toulouse'raino. Euskaldun lurra eta Bearne'ko zati bat, Naparroa'ko Erreinoarentzat.

Moroen eraso bateri erantzunez, Ebro'ra botatzen ditu eta Albelda'ko monastegia ereitzen du. Zaartzaroan, berriz, Abderraman III'garrenak, Iñiga Aristaren billobak, Valdedunquera'ko artan, napar, alabar, giputxu, bizkaitar eta leonekoak garaitu zitun, danak batera.

Gartzia Santxez III da ondorengo napar erreaga. Simancas'en ordaiñak emango dizkio moroei, leondar eta beste guztiakin.

Ondoren, Santxo II Garzes Abarka, dator. Gaskuña'ra joan zan bere gudariekin koñatuari laguntzera. Bitarte orretan elurte aundiak izan ziran Pirenee-mendietan; ori

ikusita, moroek Iruña'ri erasotzen dioten gudarostea Gaskuña'n dutelako. Baña Santo II'garrenak, gudari guztientzat abarkak egin arazten ditu eta zaldia eskutik eramenez, mendiak igarotzen ditu eta, ustegabeen moroen gañera erortzen da... Ortik etorri zitzaion Abarka gaitz-izena.

Aren seme Gartzia Santxez IV'garrena dator ostean. Beste kristau erregeekin batera, Abderraman III gainduko dute Catalañazor'en, Sori eta Osmar'ren tartean. Burruka galduz eta irugarren egunean il zan Abderraman III'garrena, euskaldun emakume baten illoba.

### Santo Garzes III, Aundiena (999-1035)

Kastilla'ko erregearen alabakin eskondu zalako eta berak irabazitako erreinuengatik, beste tituluak onek zirun: Kastillako errege, Astorga'koa, Araba-Bizkaia-Gipuzkoa eta Iruña'koa, Aragoi, Leon eta Asturias eta Gaskuña'koa. Galizia eta Kataluña, ez, moroai arrapatutako beste guztiak bere mende artu zitun. "Santo Enperadorea" ots egitenzioten. Ez zeukan enperadore izateko kutiziarik eta bere semeen artean banatu zitun erreinoak. Nagusiari, Iruña'koa eman zion, Monkaio mendiaraiño iristen zana.

Gartzia Santxez V, Najera'koa etorri zan bere ondoren. Kalahorra moroen eskutik askatu zuan: 124 urte zeramazkin moroen mendean.

Santo Gartzia IV, Peñalen'goa, izan zan bere ondorengo. Basurde eta oreiñen eizean zebiltzela, bere anaiek mendian beera amildu zuten Peñalen'go malkorrean Ekainaren 4'ean, urtea 1076. Naparrek aren ondorengo izandatzeko, naiago izan zuten Aragoi'era jo eta an Santo'ren aitaren anaia aukeratu, izenez Aragoi'ko Santxo, Santxo Aundiaren semea. Deitura onekin ezagutzen degu:

Santxo V, Ramirez (1076-1094). Beregan bat egiten dute Naparro eta Aragoi'ko erresumak.

Bere seme nagusia Pedro Santxez I, 38 urterekin illak, segitzen dio erregetzan.

Onen ondoren bere lengusua dator errege-aulkian: Alfonso Santxez I, Burrukatzailea. Bere bizi osoan ez zuen besterik egin burrukan baño, ifarretik bezela berdín egotik, ere. Baiona'ri esia ipintzen dio inguruan, Gipuzko eta Bizkaiko barkuei etortzeko eskatzen die Baiona'k itxasotik laguntzarik artu ez dezan. Bitartean berak bere barkugintzari ekiten dio. Ori naikoa ez dala Eki-aldera ere burrukan diardu il arte.

Onen eriotzean Naparroa eta Aragoi banatzen dira: Aragoi'koek ildakoaren anai Ramiro II aukeratzen dute; naparrek, berriz, naiago dute erege-aulkirako Gartzia Ramirez, Printze Naparroa'ko Ramiro'ren semea, Cid

Campeador'en illoba eta Santxo Aundia'ren billoba. Bitarte orretan Kastilla, Aragoi eta Kataluña Naparroa euren artean banatu nai dute... Kristau erregeen arteko burrukak datoz... Aspertu diranean, guztiok bat egiten dute eta Cordoba, musulmanen uri nagusia artzen dute danen artean. Errege onen ondorengo, bere lenengo emaztearen semea aukeratuko dute:

## Santo VI, Jakintsua (1150-1194)

Kastilla'rekin gerrateak amaitzeko, Berengela'kin eskontzen da; Kastilla eta Barzelona'ko buruzagien arrebarekin. Kastilla'ko Alfonso VII'garrenak seme txikia, Alfonso VIII, utzi bere ondorengo. Ori ikustean naparrak Errioxa eta beste Naparroa'ri arrapatutako lurraldeak eskuratzen ditu. Bureba artuta, Burgos uritik 20 kilometrorra, bere ezpata arbola batean sartzen du onela esanaz: "Onutzaiño eltzen da Naparroa'ko erreinoa". Bizkaia'n Malo Arbola egiten zutenen antzekoa: andik aurrera ez dago burrukarik; ez degu nai iñoren lurrak arrapatu.

Alfonso VIII, 15 urte zituela adiñekoa zala errege izateko eta 14 urteko Leonor de Plantagenet'ekin ezkondu zuten. Ingalaterra'ko Enrike erregearen alaba zan. Ekin diote berriro Naparroa'ren aurkaku etengabeko burrukak. Aspartu diranean Ingalaterra'ko Erregearen eskuetan zuten dituzte euren auziak.

Araba eta Gipuzkoakin artu-eman eraman zitun. Vitoria'ko uria sortu zuan (1181), Gasteiz'ko parajea, eta Logroño'ko fueroaren antzekoa eman zion. Donostia sortu zuanean, berriz, Jaka'ko fueroa aukeratu zuen arentzako. Naparroa'ko berezko portua zanez Donostia legeak izendatzen ditu zer jenero sartzen, eta ateratzen zan Donostia'ko portutik. Ona batzuek: burnia, urraida (cobre) eta zirraida (estaño); barrikak, larruak, pikea, piperra, argizaria, oialak, sokak, oreiñ larruak... Legeak zeatzatzen du Baiona eta La Rochelle'kin zizuten aremanak; baita itxas-auzitegirik zaarrena sortu zala ere Donostia'n.

1191'garren urtean Beregela, Santxo'ren alaba, Ingalaterra'ko Rikardo III'rekin ezkondu zan. Poitiers eta Akitania'ko Jauna zar eta "Rikardo Leioen Biotza" zeukan izen-ordez. 1194'an il zan erregea eta bere ordeko.

## Santxo VII Indartsua (1194-1234)

Iru urte pasa zitun moroen lurraldeetan lagun bezela. Bitarte orretan Alfonso VIII Kastillako erregeak Vitoria-Gasteiz, Donostia et Ondarrabi artu zitun. Orrela, 1200'garren urtean, Gipuzkoa betirako alden du zan

Naparroa'tik. Urte berean Alfonso'k Durango-aldea bereganantzen du Kastilla'rako. Naparra ez zitzaion besterik gelditzen Bizkaia'n.

Iru urtez beranduago, 1203, Agramont'eko jaunaren omenaldia jasotzen du, Benabarra Naporroratuz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoen ordañak. Donosti'ko portua galduta, Baiona'ra jo zuan, aremanetan jartzeko, bera izan zedin aurrerantz Naparroa'ko kaia, "Ingalaterra"ko Erregeari zor zion begirunea gordeta".

## Tolosa'ko Las Navas; Ekainak 12, 1212 urtea

Kristau erregeek etenik gabeko asarretan, alkarri mokoka dabilzala, Afrika'tik Hispania'ra sartzen da izugarrizko Almohada'tarren gudarostea eta Andaluzi osoa artzen du bere mende. Kastilla'ra bidean datoz. Aita Santu Inozentio III'garrenak Kruzada'ren ikurriña jasotzen du Europa osoan.

Gudaroste aundi bat osotzen dute kristau errege guztiak, atzeritik (Alemania, Frantzia eta abar) etorritako gudaritaldeekin batera.

Kristau-gudarostea Toledo'tik irteten du 1212'garren Ekina'ren 20'ean. Aurretik Bizkaia'ko Jauna, Lope de Haro, zijoan Europa'tik etorritako gudari-taldeekin; ondoren "Militar Ordenak" eta Kastilla'ko Udalak...

Topaketa gogorra izan zan. Muño batean, Miramamolín moroen buruzagia begira, kateekin lotutako gudari beltzez inguraturik esi baten atzetik. Arrapatu eziña, Santxo Indartsu naparra etorri arte; bere burnizko bola aundiakin, katea zipt-eta-zapt apurtu zituen. Ordutik daude Kateak Naparroa'ren ikurriñan. Egun artan amaitu ziran Almohade moroen indarrak eta erasoak. Orreag'ko Monastegian daude Santxo Indartsuak burrukarako erabiltzen zituen galtzairuzko bola oiek. Kate batekin lotzen dira, makilla batera. Makilla eskumuturrean artu eta aren zanbatakoai eusteko ez zegoen ezer. 80 urtekin il zan; Orreaga'ko Monastegian eortzi zuten. Berarekin amaitu ziran errege naparrak. Ondoren bere illoba Teobaldo, Champagne'ko Etxe Frantzesak'kor dator.

## GIZAKIEN AR-EMANAK MENDEETAN ZEAR

### Gizaki eiztaria

Odola da taldearen eutsigarri; familiak osatzen du eizerako taldea. Lur-gañean dauden frutu guztiak, guztienak dira. Leizeetan bizi dira eta bertan eortzen zituztenildakoak. Badituzte baita ere, eizerako bakarrik erabiltzen dituzten kobak. Leizea da egoitza eta lantegia; bertan egiten zituzten lanabesak, jantziak eta bear dituz-

ten bizitzeko gauzak. Sua leize ataritik gertu. Eizea eta bildutako frutuak, oietan dute anagusitasuna.

### Gizakia artzai

Abereak ezi dituzte eta eurokin dabilta batetik bestera jan billa. Udaran mendi gañetetan bizi dira eta an dau-de gorpuak eortzeko trikuarriak, 800 metrotik 1,200'rako tartean. An dituzte mendiko txabolak lanerako: gaztaiak egin, artilezko jantziak ere bai eta egurrezko ontziak.

Odolak batzen ditu familiak. Bi egoitza dituzte: bat goietan udarako eta betea bee-aldean negurako. Belarrrak, ura eta egurrak, guztienak dira. Jabetasuna, artaldean bakarrik esagutzen zaio. Mendian badu txabola inguruan toki bat artaldea bildu eta gabean gordetzeko. Baña, ez dute oien jabetasunik.

Ballaratan banatzen dira. Eortzi, berriz, trikuetan eta bee-aldeko koba-zuloetan ere bai.

Aralar-mendiko artzaien txabolak mende onen (XX erdi-aldera: metro t' erdi altu, lau edo bost metro luze, bi metro zabal; bertan artzaiaren oatzea lurrean; apalak aldamenetan gaztaiak umatzeko; ataritxo bat eta bertan sua; antxe egitezituen gaztaiak. Keia gaztaiari kolorea emateko ataritik sartu eta ormazirriztutik irten, arriak kare gabe eta ezer gabe alkarren gañean ipiñita zeudelako. Beste kee-biderik ez zegoen. Txabola beti irikita bear zuen, giltzarik gabe, ez zutelako jabetasunik.

### Artzaia, nekazari

Nekazaria toki bateri lotuta dago; ez dauka, artzaien antzera, batetik betera ibiltzerik. Uda eta negu etxe berdiña dute. Aren inguruan esi bat jabetasuna agertzeko. Odolezko ar-emanek, auzokoa ere tartean dago.

Asieran etxeak bakardadean zeuden, batetik bestera urrun. Ballaratan banatuta. Artzaien aurka beti; aiek bideak zabal nai dituzte; nekazariak, berriz, bere ingurua itxita. Auzoen arteko ar-emanak geroz eta geiago; garrantzi aundikoak izatera eldu ziran.

### Erromatarren garaia

Bakardadean zeuden etxeak bildu egiten dira eta orrela sortzen dira erriak eta iriak. Ar-emanak etxean odolak agintzen ditu; ondoren datoz auzokoak; baña, orain ar-eman berri bat sortzen da, erri ta irikoarena. Lan-bide berriak agertzen dira (europatarren gazteluetan bazeudena) eta euren arteko ar-emanak.

### Baskoien garaia

Ar-eman oiek guztiak diraute; baña, Garona eta Adur ibaien ingumarietan (Novempolulania edo Akitania zaarra), Vasconia (Wuasconia edo Gascuña) bat aitatzen da, bederatzi (gerora amabi) errien kopurua. Ballarak ez dira naikoa; andik kanpora Baskoiak daude, baita beste Bardulo, Karisti eta Autrigoiak ere... Ballara gañetik beste gune zabalagoa dago bereiziki markatuta, euskaldunen lurraldea... Familiko, auzoko, erriko, erri-arte, ballarako, ballara arteko, la-bide arteko ar-emanak diraute.

### Erreinoa'ren garaia

Agintaritza ballarai-ballara banatzen da. Legeak oiturretatik sortzen dira. Oitura bat guztiak artzen dutenean, orduan biurtzen da lege. Idazten danean, berriz, Fuero...

Garai onetan erriak, iriak, ballarak 'Señorios eta Condados' bezela ikusten dituguz bilduta: Ayala, Alaba, Bizkaia, Gipuzkoa, Laburdi, Zuberoa eta Nájera (Errioxa). Alde bakoitzak agintaritza berezia du; baña, beste agintaritza nagusi baten mende.

Jaun eta Konde auek Baskonia garaian azaltzen dira, beste izen eta jendeak galdu diranean, orduan diraten dute Baskoiak eta Baskoniak... Artzai eta nekazaritzari beste ordenamentu asko eantzi diete, ikusi degun bezela... Orain beste guztien gañetik agintari militar eta politikoak sortu dira...

Buruzagiak beste buruzagiekin naasten dute beuren odola: Iñigo Arista, Tudela'ko Benukasin moroekin, alkar indartzeko eta alkarri laguntzeko. Lurraren mugari bezela, gazteluak jasotzen dira, kanpotik datozen eraso-aldiai gogor egiteko...

Famili arteko ar-emanek, auzokoei, errikoei, ballarar-koei... orain beste ar-emanak jaio dira alturako Erri-Agintariekin.

### Zerki berri bat

Sartaldeko Erromatarren Inperio galdu zanatik, Pirenetako Erreinoa sortu zanerako, euskaldunen ar-emanetan beste zerki berri bat agertzen da: erriaren biotzean kristau eliza.

Erri basatien eraso-aldietako okerkerien artean, Erroma lur-jota dagoenean, Edestia'ren illunpe luze orretan, Pirenee-mendarteko Iruña'ko Erreinoa sortzerako, euskal erria kristautasunean sendo errotuta agertzen zaigu.

Batez ee Elizak bere askatasuna Erroma'n lortu ezkerroz (313).

## Garaiak eta Gotzaiak

Edestiak erakusten digu zer garaitan zeuden Gotzaiak geure errietan: 490'garren urtean Didimo zan Kalahorra'ko Gotzai; 505'ean, Nizezio Auszi (Auch)'ko Gotzaia; Graziano Acqs. (Dx)'eko; 506'ean, Klaro Elusa'koa; Sextilio, Bazas'koa; San Grato, Oloron'goa; Euterio, Lectora'koa; Aper, Tarbes'koa; Suavis, Comminges'koa (Lugdunum Convenarum); San Galatorio, Escar'ekoa; 509'an Marzelo, Atur'ekoa; 530'ean Illidio Acqs (Dax)'koa; eta geiago Ipar-alde orretan.

803'an Setia'ko Gotzaitagia, Jaka'ra doa betiko; 804'an, Juan Auka'ko Gotzaia, berriz, Balpuesta'ra.

Novempopulania'ko (Baskonia) uri ako aitatu dituguz; baña, ez danak... Egoaldeko Euskalerra'n, Armenitiakin Kalahorra, Iruña eta Oka.

(Berri geiago nai duenak ikusi beza: Epoca Romana I, Auñamendi'ko Enzikolpia'ren 575-580 orrialdietan).

Esan degunez arkeologiazko astarna aundirik ez dago gai oneri Euskalerra'ren biotzean; baña, oraindik orain, Araba'n sekulako leizeak aurkitu dira, ermitaño kristauen egoitza izandakoa...

## Araba'ko Koba Egiñak

XX'garren eunki onetan, aztarna asko eta garrantzizkoa, aurkitu dira Araba'ko ego-aldean, Vardulia eta Caristia eltzen ziran tokietan: Kantabria mendartearen inguruan; baita Ebroaren ballaran ere, Errioxa aldean.

Eun baño koba geiago agertu dira, guztiak gizonak egiñak, eremutar sail baten egoitza kristauak. Danen bistan egon arren ez zan iñor konturatu zer ziranik, gizaldi au asita gero arte.

## Eremutar kristauak nola sortu ziran

Eliza kristaua irureun urtez zigorpe larrian egona da. Odolixurte aundiak izan ziran urteetan zear. Martiriak ziran garai artako eguneroko ogia bezela. Tertuliano idazleak orduan zionez: "Martirien odola, kristauen azia". Egun latzak kristaudentzat. Pakea Kontantino'rekin etorri zanean (313), erreza zan kristau izatea; errezegia. Orregaitik kristautasuna moteldu egin zan. Ba'da ez ba'dako asko igo zan Elizaren gurdira. Arazo onek susoertu zitun benetako kristau sendoak eta ortik sortu ziran eremutar kristauak. Eremura baztatu eta an bizitza latza eramanez, otoitzean egin egun osoan, martirien odola, eremutarren nekeekin berdindu. Bata bestearen orde: odolozko martiri gorririk ez

zegoenez, martiri zuriak sortu basamortuan penitentzi artean.

## Palestina'tik ifarrera eta egoera

Ifarrera, Siria'n eta egoaldera Egipto'n. Orra nun sortu ziran eremutar kristauak. Ifarretik, Europa'ra eta egoitik Afrika'ra zabaldu ziran.

Justiniano, Oriente'ko Enperadoreak, Sartaldekoa berreskuratu nai izan zuenean, orduan etorri ziran bera-rekin batera Hispania'ko Betika aldera eremutar kristauak. Erregeak ezin izan zuen Betika'tik gora igo; baña, bere moje eta eremutarrek, bai.

## Kapadozia eta Kantabria euskalduna

Siria'tik ifar-aldera, Turkia'ko Kapadozia'n kokatu ziran eremutar kristauen saillak. Kobak egitea oso erreza zan aitz aietan eta leize aietan egin zuten euren egoitzak. Kantabria mendartera etorritakoek ere berdin egin zuten: aitz lantzen erreza zan eta Kapadozia'ren antza artu du mendarte orrek eta baita Errioxa'ko zenbait tokiek ere.

Kantabria'n Kapadozia'ren antzera: bikiak ematen dute. Kapadozia'n aurrerago; Kantabria'n beranduago, bisigotiko edo mozaraben era.

Ustegabeen, eskura etorri zaizkigu, izugarritzko kristautasunaren lenengo aztarna multsoa. Or zeuden mendiak kobaz josita eta ikusi ez.

## Aurkitutako iru ermita bisigotikoak

Bat, Zalduendo'ko Aistra auzoan, ardien borda biurtuta zegoena. 1970'garren urte aurretik aurkitu dute. Bertan ikusten da leio bisigotikoa arri baten egiña. Arri aundiz egiña da, bisigotikoen antzer eta erromatarren egitura; ez ain egoki. Puntadun frontoi baten amaitzen da. Frontoi eta ormaren artean arrizko egal bat ikuste da, bisigotiko lanen antzekoa. San Julian de Aistra, da.


San Juan de Araya, Aurreko ermitatik bi kilometrorra beste bat aurkitu dute, Araya errian, Romaniko itxura du, begirada batean; baña, ikusten dira bi esku ibilli dirala lanean: bata erromanikoa eta beste aurrerakoa, bisigotikoa: arri labratu aundiz egiña, Aistra'koen antzera.

San Juan de Elburgo. Estibaliz'ko monastegitik gertu, irugarren ermita agertu da: bi lanak naastek ditu: erromanikoa eta bisigotikoen xeetasunak. Iru eliza auek aurkitu berriak dira; erremutarren leizeak baño urte asko beranduago. Ermitak Kantabria mendartetik ipar-aldera doaz, Aitzgorri mendirarte.



# ARGIUNEAK

## Sekularrak parroko




- Nork esan dau orrelakorik?
- Esan bakarrik, ez; egin be bai. Orrelakoa zan Malula Kardenala.
- Eta, txotxo ori nor da?
- Amar urte dira il zala Congo'ko Errepublika Demokratikoan.
- Afrika'n, orduan.
- Kinhasa Errepublikaren Uri Nagusian. Ango Elizkardenala zan eta aren garaian sortu ziran eta mamitu bere Elizaren pastoralerako bide nagusiak...
- Zeintzuk, ba?
- Liturgian Zaire erriko kutsua sartun, iru seminario jaso eta Bakambi elkarte sortu.
- Zer da Bakambi elkarte?
- Parroko berrien elkarte.



- Eta nun dago berritasun ori?
- Ez dirala apaizak. Parrokoak apaiz izatea, ikusi dogu beti; baña, Kardenal Malula onek, apaiz ez ziranak egin zituen Parroko.
- Gauza bitxia. Aprobato bat ez legoke txarto etorriko... (Mundo Negro. Ekainilla 1999).

## Umeak esklabu



- John Eibner jaunak esklabuak erosten ditu, askatzeko.
- Nor da jaun ori?
- Christian Solidarity Internacional elkarte bat. Alkartearen ekintza orixe da: esklabuak eros, askatasuna emotek.
- Nor tzui erosten deutsez?
- Arabiar esklabu-merkatari. Onek Suda'eko erri beltzetan sartun eta mutiko eta neskatoak arrapatzen dabez esklabutarako.
- Zenbatean saltzen dabez?
- 50.000 Sudan'eko liberetan bakoitza: 50 dolars gutxi gorabeera.
- Ez litzake oba ez eroste? Erosten ba' dira esklabu' merkatua aundituko da...
- Obena lizake Sudan'eko Jaurlaritzari eskatzea, edo jaun oiek beartzea, esklabutza kentzeko...
- Ori izango litzake gauzarik onena; baña bitartean, mutiko eta neskato oiek esklabutatik ateratzea, lan agungarria da.

## Errusia'ko Moda Berria

- Moda berri asko egongo da Errusia'n oraingo.
- Bai, ala da. Komunismoak lur jota gero, ekonomi aldetik izugarrizko naaspillea sortu da, eta argienak eta lotsabakoienak dirua pillatzen ari dira ugari...
- Ia ba, zer moda berri da gaurko ori?
- Aberats berri onek ez dabe naikoa emazte bategaz...
- Ori emen be gartzen zan, gera ondorengo "haiga" aberats aiekin, emazte batekin ez ziran konforme eta beste maitale bat ekarri bear...
- Baña, errusiar aberats berri onek ez dira edozein maitaleekin konformatzen...
- Zer ba?
- Kutsadura gaiztoak dabiltzala maitaleen artean...
- Eta?
- Iñungo kutsadura bako birjiñak nai dabez, garbi-garbiak...
- Nun topako dabe orrelako aingerutxurik?
- Ba, orixen: aingerutxuak bear dabez eta orretarako neskato errugabeak erosten dabez milloi bat presetatan oerako laguntzaille.
- Orixen da oraingo modako esklabutza berria.
- Eta, oein gurasoak?
- Alaba gaztetxoak saltzeko moduko goseak eraginda dabilta.



## Umeak eta Euskera


- Zenbait errietan aldaketa ederrak izan dira arazo onetan.
- Zer erri?
- Esate baterako, Deba'n.
- Argitu egidazu obeto arazo ori?
- Ara, ez naiz besteen itzekin berbetan egingo; neuk dakidana azalduko deutsu.

## BARRIAK

- Nundik asi bear dozu?
- 1950'tik ona; ni ona parroko etorri nintzan garaitik. Eta Parrokiko Katekesia erabiliko dot ardatz.
- Deba beti izan da erdalduna; udarako jende asko etorri izan da beti, Madril'etik bezela, Zaragoza'tik be... Orrek asko eragin dio erderari...
- Alaxen da: 1950'tik 1963'errenera Dortiñako taldeak onela banatzen ziran gutxi gora-beera: zortzi erderaz eta bi euskeraz.
- Zergaitik ez zenduten zortzi euskeraz ipintzen...
- Guk ez genduan Katekesia ipiñi euskaraz ikasteko, kristaudotriña ikasteko, baizik eta ori ume bakoitzari bere izkeran eman bear zako...
- Eta, gero zer gertatu da?
- 1963'an eskola txiki bat sortu genduen euskeraz... Eta txiki ori, aundi egin da urteetan zear... Eta aspaldian gabiltza katekista erdaldunei, lana eman eziñik. Ama taldeetik amarrak izan bait dira euskaldunak aspaldiko urte auetan...
- Gaitz bat bakarra dauka arazo orrek...
- Zer gaitz?
- Batuaren kutsadura, besterik ez.


### Jose Luis Guerra kantorea

- Bost urte ixilik egon da gero, ai da berriro kantari Madrilén.
- "Biliburrina"ren egilea al da?
- Bai, ala da Dominika'ko abeslari au. Milloi bat diska salduta dauzka mundua.
- Baita platinoko diska irabazi be España'n. Bañan, zergaitik egon da ixilik ainbeste denboran?
- Ez ebalako ezer esateko; eta orrelakorik gertaten ba'da, oba aoa mutu edukitzea.
- Zergaitik?
- Berak dionez musika zuzentasunez eraman bear da... Zuzena izatea da bizitzaren ardatza kantore batentzaz, talentoa bera baño leenago...
- Ez eban ezer esteko eta orregaitik alde egin al eban?
- Pakea bear omen eban eta Jesukristo'gan billatu omen dau. Ots egin eutson otoitzean eta bere erantzuna artun dau... Orra zergaitik datorren berriro kantari.




### Abdalá Okalan kurdoak

- Turkia'n preso daukatena?
- Berbera. PKK'ren buruzagia.
- Zer da PKK ori?



- Kurdistan'eko Langilleen Alderdi komunista-leninista.
- Noizkoa da Alderdi ori?
- 1978'an sortu eben estudiante dozena batek eta 1984'ean burruka armatura jo eben beuren erri Kurdistan askatzeko.
- Zer arazo du Kursitanek eta kurdoek?
- Euskaldunok bi Laterrietan banatuta gauden antzera, oek okerrago, lau Laterri aundieneta dauzkate zatiak...
- Orixen bai gauza larria dala. Zein laterri dira orrek?
- Turkia, Siria, Iran eta Irak... (Baditute zatitxoak baita Armenia'n eta Azerbaijan'en be).
- Orixen bai dala benetako naigabea...
- Erritik kanpo daukaten Lege-biltzarra bildutko da aurtengo Uztailean Gazteiz'ko Lege-biltzarrean.
- Eztabaida latza sortun dau orrek España'n...
- Alan be, egingo da. Beste bi alderdi geiago be badaude armatuak ez ditinak... Ocalan buruzagia kin-da larrian dago: eriotzara eramango dute Turkia'ko agintariek.



### Mannterola'ren Ipuitxoak


- Aitak il-zorian:
- Maztegia eta etxetxoa besterik ez dautzuet itxiko iltzen nazenean; bañan, lurra ondo astintzen ba'dozue, idoroko dozue gordeta daukan ondasuna.
- Semeak asi ziran lurra ondo aztertzen eta astintzen; ez eben ezer topau; bañan, ondorengo udazkenean, a zer mats mordo ederrak artu ebezen. Lurrak gordetzen daben ondasuna, ondo astinduta gero emoten dau. Alperkerian ez dozu asunak eta lurrak besterik aurkituko...

\*\*\*

- Semeak perretxikutan mendirik mendi:
- Auek dozak perretxiku ederrak: gorri-gorriak eta tanta zuriz egoki jantziak...!
- Ouek ez dira ain ederrak, perrotxiko illun eta baltzak...
- Aitak etxean semeei:
- Perretxiku gorri eder oiek, bota eizuez urrunera...
- Eta, beste beltz auek?
- Oiek ontto beltzak dira; gauzarik gozuenak. Ez itxurari begira; itxura ederdunak, maiz pozoituta dagoz; apal eta illun daudenak, beriz, mokaurik goxuenak...
- Itxura-kontrako asko dago munduan.



Bartolo Arropaingo  
Ekainilla. Urtea 1999

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Ur korrontekak

Azalpena: Errekak



Zazpi erru dagoz marrazkian. Aurkituko dozuz?




Zorti zati oneen artean, batzuk bear dozuz gizonaren gorputza egiteko. Zeintzuk?



Urzaldia, zegaz amesten dagon jakin gura dozuena, margotu eizue! 1 baltzaz; 2 larrosaz; 3 grisez; 4 urdin argiz; 5 orlegiz; 6 oriz

Azalpena: 1-2-3-4-5-6


KARMELE



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350  
Lege gordailua: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO